Elkartearen estatutu sozialen bigarren artikuluan xedatutakoarekin bat, erakunde honek helburu du Erretinosi Pigmentarioaren inguruan gizartea informatu eta sentsibilizatzea, sinergia oro ikerketa genetikoaren inguruan bilduz, gaixotasun honek eragindakoek osatzen duten kolektiboaren bizi-kalitate egokia erdietsi arte.

Xede hauen erdiespenerako, Elkarteak bere estatutuetan aurreikusten dituen iharduera ezberdinak egikaritzen ditu eta, besteak beste, jarraian aipatzen direnak:

- Gaitzaren inguruan ematen diren aurrerapausu mediku-zientifikoaren inguruan informatzea.
- Oftalmologo, genetista, zientzialari, ikerketa-talde, etabarrekin elkarlanean aritzea, beti ere Erretinosi Pigmentarioaren alorrean.
- Bai gaixotasunak eragindako baita berauen senide eta adiskideentzat ere izaera sozialeko iharduerak antolatzea.
- Antzeko helburuak dituzten bestelako erakunde edota erakundeekin hartu-emanak estutu.
- Erakunde nahiz publiko nahiz pribatuetatik baliabide ekonomikoak eskuratu.

3.- BAZKIDEAK

Elkartearen estatutuekin bat bazkide izan daiteke, alde batetik, erakunde beraren xedeak bete nahi dituen eta, beste alde batetik, hurrengo baldintzetako bat betetzen duen edozein izaerako pertsona:

- Adin-nagusikoa edota adin-txikiko emantzipatua izateaz gain eskubideren baten egikaritzarako inolako legezko baldintzari loturik ez egotea ezta inolako ebazpen judizial irmoren arabera gaitasuna mugatua izatea ere.
- Emantzipaturik ez dagoen adin-txikikoaren kasuan, hamalau urte baino gehiago izatea eta bere gaitasun-eza ordezkatu behar duten pertsonen agiri akreditatu bidezko adostasuna izatea.
- Tutoretza- edota kuratoretza-pean daudenen gaitasun-gabezia osatu edo ordezkatu behar duten pertsonen agiri akreditatu bidezko adostasuna beharrezkoa da, ezin izango dira ez gobernu-organuaren kide ezta elkartearen ordezkarri izan ere.

2017ko abenduaren 31ean Retinosis Gipuzkoa Begisarek 239 bazkide ditu, berauetako 130 emakumezkoak dira eta gainerako 109ak gizonezkoak.

4.- JARDUEREN MEMORIA ETA ERAKUNDEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK, BAITA BERAUEN ONURDUNAK ERE

Horrela, elkarteak burutzen dituen ihardueren onuradun izango dira bai Erretinosi Pigmentarioaren gaixotasunak eragindako guztiak eta beraien senideak, baita gaitz honekin harremana duten zientziaren edozein arlotako profesionalak ere. Era berean, "Ikusmen Murriztua Dut" deritzon bereizgarriaren inguruko proiektuari esker onuradun-kopurua nabarmen areagotzen da, izan ere, ikusmen murriztuaren sentsibilizazioak berau pairatzen duten gizon-emakume guztiak onuraten ditu zuzenean, gutxi gora-behera biztanleriaren %2a hain zuzen ere.

Iharduera gehienek duten onuradunen kolektiboa erabat zabala eta zehazgabea da, izan ere, gaitzaren dibulgazioa, bere zailtasunak, bere beharrak, ematen ari diren aurrerakuntzak, eragindakoez dituzten baliabideak etabar, Retinosis Gipuzkoa-ko bazkide diren edo ez aintzat hartu barik, era guztietako eragindako pertsona, gaixo, senide eta gainerakoak onuraten dituzten egintzak dira.

Era berean, pertsona kopuru ahalik eta zabalenera iristeko asmoz beste elkarteekin hartu-eman franko izaten, gaixotasunaren sentsibilizazioaren inguruko ihardunaldiak ospatzen, paper eta bideo formatuan edizioak argitaratzen, hitzaldiak etabar antolatzen ditugu.

Jarraian 2017 urtean zehar gauzaturiko programak, hauek osatzen dituzten jarduerak eta berauetako bakoitzaren onuradunak zehazten dira:

4.1.- 1. PROGRAMA: Elkartegintza:

2017 urtean zehar erretinako distrofiak pairatzen dituzten pertsonen eta beraien senitartekoen bizi-kalitatea hobetzea helburu duten saio eta jarduera ugari antolatu ditugu. Zehazki:

- Erretinosi Pigmentarioak eragindako baita beraien senideek ere izan ditzaketen informazio-, aholku- eta babes-beharrei emaniko arreta osoa. Honetaz baliatuz, Erretinosi Pigmentarioak eragindako ikusmen-urritasunak dituzten pertsonen desberdintasunak gainditzeko, bazterketa-egoerak ekiditea sustatzen, autonomia pertsonala garatzen, beraien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea dugu helburu. Horretarako, 3 alorretan aritu gara lanean: pertsona eta/edo familiari emaniko arreta eta babesa; taldeka emandako arreta eta erkidegoari eskainiriko arreta. Onuradunak: era zuzenean, bazkide izan edo ez, erretinako distrofiak dituzten pertsonak baita beraien senideak ere. Eta zeharka bada ere gizartea, izan ere, diagnostiko genetiko zehatz batek gaixotasuna hurrengo belaunaldietara ez transmititzea ahalbidetuko luke eta, hortaz, gizartetik desagertzea.

- Erakunde eta enpresa desberdinekin eta Erretinosi Pigmentarioaren ezagutza hedatzeko xedearekin bilera ugari antolatu ditugu.
Onuradunak: gizartea orokorrean.
- Arabako lurraldean erretinosi pigmentarioak eta erretinari eragiten dioten bestelako gaixotasunak eragindako pertsonen bizi-kalitatea hobetzea xede duen Retinosis Araba Begisare elkarte berriaren sorkuntzaren sustapena eta elkarlana. Izen berdina ezezik, proiektuak ere partekatuko ditugu eta batez ere lan-filosofia.
Onuradunak: Euskadin erretinari eragiten dioten gaixotasunak eragindakoen pertsonak, adituak, eta zeharka, gizartea orokorrean.
- Sortu berri den Retina Bizkaia Begisare, Es Retina, Retina Madrid, RETIMUR eta FARPE -Espainiako Erretinosi Pigmentarioaren Elkartearen Federakuntza- bezala, Erretinosi Pigmentarioaren inguruan lanean diharduten hainbat elkarterekin elkarlanean aritu gara. Aurten Acción Visión Españan parte hartzera sartu gara, ikusmen murriztua duten pertsonen eskubideak defendatzeko sortu zen elkarte, hain zuzen ere.
Onuradunak: zuzenean Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta euren inguruko senide eta lagunak, baita gaitzaren inguruan lan egiten duten adituak ere. Zeharka gizarte osoa, izan ere, elkarlanean zenbat eta lan gehiago egin eta gehiago ikertu, are eta azkarrago iritsiko dira aurrerapausuak eta lehenago erazuziko da gaixotasuna.
- Urritasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten bestelako elkarteekin amankomunean ditugun proiektuetan elkarlanean aritu gara. Besteak beste, Retinosis Gipuzkoa Begisarek abian jarri eta bere bidea daraman "Ikusmen Murriztua Dut" proiektuan ikusmen-urritazunak dituzten pertsonen elkarte baita ikusmen murriztuarekin loturiko erakunde eta enpresa ugariarekin lanean dihardugu. Ikusmenaren Gaixotasun Arraroen Behatoki Nazionalaren (ONERO) sorreran ere lanean dihardugu.
Onuradunak: era zuzenan ikusmen murriztua duten pertsonak (gutxi gora-behera biztanlegoaren %2a) eta, zeharka bada ere, gizartea orokorrean.
- Adituekin (oftalmologo, medikuntzako beste hainbat aditu, ikusmen murriztuan espezializaturiko optometristak, ikerlariak, genetistak, abokatuak, eta abar) hartu-emana eta hainbat proiektu ditugu amankomunean. Aurten nabarmengarri Gipuzkoako Sendagileen Elkagoarekin sinaturiko elkarlanaren hitzarmena.
Onuradunak: bazkide izan edo ez, Erretinosi Pigmentarioa eta erretinako bestelako gaitzek eragindako pertsonak eta beraien familia eta lagunak, baita, Retinosis Gipuzkoa Begisare ardatz izanik, Erretinosi Pigmentarioarekin loturiko arlo ezberdinetan aritzen diren adituak ere. Eta zeharka bada ere gizartea, izan ere, informatu eta aholkua eman diezaieketen adituez inguraturik baldin badaude Retinosis Gipuzkoa bezalako elkarteak, hauek egoera hobeto batean egongo dira gaixotasunaren balizko eramaile direnei aholku eman eta, horrela, bere ondorengoek gaitza pairatu edota eramatea sahiesteko neurriak hartzeko.

- Desgaitasunak dituzten pertsonak biltzen dituzten elkarte ezberdinek antolaturiko ekitaldietan parte hartu dugu. 2017. urtean honako hauetan: FEDER eta VIVEbioTECH-en arteko elkarlanerako hitzarmenaren sinaduraren prentsaurrekoa, 2017/02/23; Emakumearen egunean ONCE-k antolaturiko hitzaldia, 2017/03/8; Osasun Elkarte III. Jardunaldia Donostia Ospitale Unibertsitarioan, 2017/05/11; “Plan de Visibilización de la Baja Visión” jardunaldia Bartzelonan, 2017/05/24; Ordizian Boluntariotza Azokaren inguruan izandako prentsaurrekoa, 2017/05/29; Revisión del Plan estratégico de OSI Donostialdea, Donostian 2017/05/30; ONCE Fundazioaren Etxe Irisgarriaren aurkezpeneko izandako prentsaurrekoa 2017/06/6; Aldundiaren prentsaurrekoa, Lurraldebus autobusetan geraldia iragartzeko ahots-mezuak gehitu dira 2017/10/10; Pazienteen Europear Kongresua, Sevillan, 2017/10/20; 24 ordu arraunean Retina Bizkaia Begisare-ren alde, 2017/10/28; SEEBV-en V. Jardunaldia, Valentzian 2017/11/3; XXXIX. AON (Asociación Oftalmológica del Norte) kongresua 2017/11/24-25; Pazienteen erregistroa ONERO sortzeko bilerak; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkartasun Sariaren Banaketa, 2017/12/5
Onuradunak: gizartea orokorrean.

- Oro har, elkartearen kudeaketa hobetzarren bolondresen prestakuntza ardatz duten ikastaro eta hitzaldietan parte hartu dugu. Hain zuzen ere, Donostiako udalak antolaturiko proiektu eta dirulaguntzen kudeaketa egiteko ikastaroa, 2017/11/30 eta 2017/12/14; Gipuzkoa Solidarioak antolaturiko ikastaroetan parte-hartzea: selfimetroa eta newsletterren bidalketa, 2017/11/13.
Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta beraien gertukoak baita gizartea orokorrean, izan ere, elkartearen kudeaketa hobegoa guztiontzat onuragarria suertatzen da.

- Edozein elkarteren kudeaketak galdatzen dituen berezko jardueren egikaritzea, besteak beste egintza-plana edo ihardueren memoriaren prestaketa, diru-laguntzen eskakizun-orriak, kontabilitatea, akten egikaritzea, datu-baseen eguneratzea, eta abar.
Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere hurbileneakoak era zuzen batean eta zeharka, berriz, gizartea, izan ere, Gipuzkoak Erretinosi Pigmentarioaren inguruan Retinosis Gipuzkoa bezalako elkarte bat izatea denontzat onuragarria baita.

4.2.- 2. PROGRAMA: Komunikazioa eta hedapena:

Erretinosi Pigmentarioa duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin lanean dihardugun alorrak dira, besteak beste, gaixotasuna eta bere sintomak ezagutara ematea, ikusmen-urritasunak berezko dituen zailtasunen inguruan gizarte orokorra sentsibilizatzea eta amesten dugun sendabidea erdiesteko lanean ikerketak duen berebiziko garrantziaren inguruan erakundeek kontzientzia hartzea.

Xede horrekin www.begisare.org web-orrialdea, *Twitter* eta *Facebook* sare-sozialak eta *YouTubeko* gure kataia propioa bezalako baliabideak ez ezik, interesgarria suerta dakigukeen informazioa jasotzen duten *newsletter*ak bidaltzen ditugu, BEGIRA urtekariaren argitarapena, kolektibo eta erakunde ezberdinekin elkarrizketak eta bilerak izaten ditugu eta abar luze bat.

Egunez-eguneko hedapen- eta sentsibilizazio-lanaz gain, noizbehinka guk geuk edota bestelako erakundeek antolaturiko sentsibilizazio-jardunaldi eta – kanpaina ezberdinetan parte hartzeak, alde batetik, publiko zabalago batetara iristeko aukera ematen digu eta, beste alde batetik, helarazi nahi dugun mezua modu biderkatzaile batetan hedatzea ahalbidetuko duten komunikabideen jarraipenaz baliatzeko aukera ematen digu.

Zehazki 2017. Urtean antolatu duguna hau izan da:

1. “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarriaz baliatuz, ikusmen urritasunaren inguruan sentsibilizazioa:

2017. urtean, “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria medio, ikusmen urritasunaren existentziaren sentsibilizazioan aurrerapausoak ematen jarraitzeko asmotan biziki aritu gara lanean. Profesional ezberdinei emandako hitzaldiek, ikusmen murriztua duten pertsonen azalean jartzeko sortutako APP-ek eta egoeraren ikuspegi osoa jorratzeko antolaturiko jardunaldiak dira, besteak beste, ikusmen murriztua duten pertsonen zailtasunak ezagutu eta kontuan dituen gizarte inklusibo eta integratzaileago bat lortze aldera eginiko ekintzak.

Gure kolektiboaren alde Gipuzkoan ematen ari garen aurrerapausoek sortzen diguten sentipen bikaina kontuan hartuz, beste lurraldeetako ikusmen urritasuna duten pazienteen elkarteen ordezkariak lekukoa hartu eta hasi dugun lana jarraitzera gonbidatzen ditugu. Behar dutenerako prest izango gaituzte.

1.1 APP-ak

Oro har, guztiz itsua den pertsona bat nola moldatzen den ulertzea erraza suertatzen da. Izan ere, nahikoa da begiak itxi eta egintzat ulertzen dugun jardueretako bat egiten saiatzea, berau burutzeko ikustea ezinbestekoa suertatzen dela aintzat hartu gabe.

Ikusmen murriztua duen pertsona batek nola ikusten duen ulertzea, ordea, askoz ere zailagoa suerta daiteke. Ezagutza-ezagatik, ikusmen-akatsak ugariak izan daitezkeelako, orokorrean pertsona berak sintoma bat baino gehiago izan ohi duelako eta ikusmen-galera maila ezberdinetan adieraz daitekeelako.

Ikusmen murriztua duten pertsonen ulermena eta elkar ulertzea hobetze aldera, Retinosis Gipuzkoa Begisarek ikusmen murriztua eragiten duten sintoma desberdinak simulatzen dituzten eta aurki Android eta IOS plataformetan dohainik deskargatu ahal izango diren “Ikusmen Murriztua Dut” eta “Ikusmen Murriztua Dut VR” APPak garatu ditu.

Arlo honetan guztiz berritzailea eta aitzindaria den tresna bat da. Funtsean, gure smartphonek duten kamera, tuneleko ikusmena, erdiguneko ikusmen-galera, fotofobia edota ikusmen partxeatua bezalako sintomak simulatzen dituzten filtroak eta errealitate birtualeko betaurrekoak erabiliz, gizarteari ikusmen murriztua duen pertsona batek mundua denbora errealean nola ikusten duen erakustean datza. Gure lekuan jartzea baino modu hobea ez dago bizi ditugun zailtasunak ulertzeko.

Aplikazio honen erabilerarekin bizitako esperientziak, gaixo dauden pertsonetara ulermena sorraraziko du. Ikusmen urritasuna duten pertsonak nola ikusten duten ulertzeko balioko du, dituzten zailtasunak ezagutu, eta beraiekin modu egokian interaktuatzeko ikasi daiteke.

Ikusmen urritasunarekin lan egiten duen profesional askorentzat oso erreminta erabilgarria izan daiteke (oftalmologoak, optiko-optometristak, ikusmen rehabilitatzaileak, psikologoak, hezitzaileak), eta baita ikusmen urritasuna duten pertsonentzat eta pertsona horiek ordezkatzeko dituzten kolektiboentzat.

Azken finean, ikusmen urritasunaren inguruan dagoen ezagutza eta ulermen ezarekin amaitu eta, gaixotasuna duten pertsonen autonomia eta bizi kalitatea hobetzea da helburua.

1.2. IKUSMEN MURRIZTUA DUT JARDUNALDIAK 2017

Pasaden abenduaren 1 eta 2an Ikusmen Murriztua Dut Jardunaldiak 2017 ospatu genituen Donostian. "Ikusi sinisteko, partekatu aurrerapausoak emateko, ikustarazi hobetzeko" lelopean, jardunaldiok antolatzen animatu gintuzten arrazoi eta Ikusmen Murriztua Dut proiektua oinarritzen den filosofia jasotzen saiatu gara.

1.2.1.- Ikastetxeei zuzenduriko jardunaldia.

12/1 ostirala, goizean, Donostiako San Patricks School, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin ikusmen murriztuaren existentzia ardatz duen sentsibilizazio-lana egin genuen hainbat saio praktikoen bitartez:

- Astronomía irisgarria.
- Smartphoneen irisgarritasuna.
- Ikusmen murriztuaren simulagailuarekin jolasean Real Sociedad Fundazioarekin.
- Ikusmen murriztuaren simulagailuarekin ginkana.

1.2.2. - "Ikusmen Murriztua Dut" eta "Ikusmen Murriztua Dut VR" APPen Aurkezpen Instituzionala".

12/1 ostirala, eguerdian, bere eremuan aitzindariak eta %100 euskaldunak diren APP-ak aurkeztu genituen. Aurkezpen ofizialean babesleak, laguntzaileak, bolondresak, senitarteko eta lagunak ezezik, Retinosis Gipuzkoa Begisarek ikusmen urritasuna ezagutzera emateko egiten duen lana benetan positiboki baloratzen duten euskal instituzio ezberdinen ordezkariak ere izan ziren.

1.2.3.- Profesional, Ikusmen Murriztua Duten Gizon-Emakume eta Herritar Guztiei Zuzenduriko Jardunaldia.

12/1 ostirala, arratsaldean eta 12/2 larunbata, goizean, Euskadin lehendabiziko aldiz, ikusmen murriztuaren inguruko jardunaldiak antolatu dira ikusmen murriztua ikuspegi desberdinetatik eta bere osotasunean jorratuz. Eta guzti honen lokarri "Ikusmen Murriztua Dut" bereizgarria ikusmen murriztua duten pertsonen elementu integratzaile eta normalizatzaile gisa.

"Ikusmen Murriztua Dut" Aplikazioaren Aurkezpena.
Itziar González, Retinosis Gipuzkoa Begisareko Presidentea.

1. Gai-Multzoa: Ikusmen Murriztua eragiten duten gaixotasunen aurreikuspen eta ikerketa. Moderatzailea: Cristina Irigoyen oftalmologoa.
Helburua: Ekidin daitekeen itsutasunaren prebalentziaren gutxitzea.
Marta Figuroa Doktorea, Fundación Retina Pluseko Presidentea.
Begiko patologiaren ikerketak dituen erronka eta aurrikuspen berriak.
Jordi Monés Doktorea, Barcelona Macula Foundationeko eta Institut de la Màculako Zuzendaria.
Glaukoma: Ikerkuntzaren aurreikuspena eta aurrerapausuak.
Iñaki Rodríguez Agirretxe Doktorea, AONeko Presidentea.

2. Gai-Multzoa: Ikusmen murriztua haurtzaroan.
Ikusmen Murriztua Hezkuntzan.
Mercedes Andrés, IBT-CRI Donostiako Zuzendaria eta Irakasle Teknikoa.
Urtzi Aizpuru, IBT-CRI Donostiako Irakasle Teknikoa.

3. Gai-Multzoa: Ikusmen murriztuaren alor psikologikoak.
Ikusmen-galerari aurre egiteko baliabide emozionalak.
Mónica Delicado, Dolu-Prozesuetan Aditua.
Onartze-Prozesua.
Arantza Uliarte, Retina Bizkaia Begisareko Presidentea.

4. Gai-Multzoa: Ikusmen Murriztuari aurre egiteko laguntzak. Moderatzailea: Eider Gutiérrez optiko-optometrista.
Laguntza Optikoak.
Carol Camino, SEEBVeko Presidentea.
Laguntza elektroniko adimenduna: Orcam My Eye by Essilor
Guillermo Merlo, Medikuntza prebentibo eta laguntzailean teknikaria.
ESight Handitze-Betaurrekoak.
María Clavero, Instituto Baja Visióneko Zuzendaria.
Mugikortasunean ikuseremuaren haunditzea lortzeko Retiplus Betaurreko adimendunak.
Elena Peláez, Informatikan ingeniaria.
Ikusmen-Errehabilitazioa.
Gerardo Pastor, ASPREHeko Presidentea.
Smartphoneak eta Irisgarritasuna.
Zuriñe de Anzola, Irisgarritasunaren alorrean Aholkularia eta Hezitzailea.

5. Gai-Multzoa: Ikusmen murriztuarekin bizi.

Lana eta Ikusmen Murriztua.

Enrique Pérez Montero, Andaluzia – CSICeko Astrofisika Institutuan Zientzia-Ikerlaria.

Kirola eta Ikusmen Murriztua.

Marcos Bajo, Asociación Muévete Por Los Que No Pueden elkarteko Presidentea.

Aisialdia eta Ikusmen Murriztua.

Ramón Corominas, Irisgarritasunean Aditua.

6. Gai-Multzoa: “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria.

“Ikusmen Murriztua Dut” ... Bereizgarria preskribatzen.

Joaquín P. Sánchez Onteniente, Clínica Universitaria de Visiónen (CUVI-UMU) ikusmen murriztuaren alorrean irakasle eta arduraduna.

Mahai-ingurua: Gerardo Pastor, rehabilitatzailea, Aitor Beraiz, Erkuden Larrauri eta Valentín Simón, ikusmen murriztua duten pertsona gisa, beraien esperientziak kontatu eta “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarriaren erabilgarritasuna eztabaidatzen aritu ziren.

1.2.4. - ESight, OrCam eta Retiplus gailu elektronikoak frogatzeko tailerrak

12/2, larunbata, goizean, aldi berean eta jardunaldiekin bat, ikusmen murriztuak eragindako 30 pertsonak baino gehiago, gelditzen zaigun ikusmen hondarra indartzera edo/eta gure autonomia hobetzera zuzenduak dauden ESight, OrCam My Eye by Essilor eta Retiplus gailu elektronikoak ezagutu eta frogatzeko aukera izan genuen aurrez eta norberaren patologia aintzat hartuta, antolatu genituen tailerretan.

1.3. IKUSMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Ikusmenaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna zela-eta, erakunde eta norbanako ezberdinen laguntzari esker ikusmen murriztua ezagutarazteko lanean eskura izan ditugun baliabide guztiak erabiltzen jarraitu dugu. Jarraian, burutu ditugun ekimen eta jarduerak zerrendatzen dira:

1.3.1. Hernaniko Udala: Hernaniko Udalak kanpaina honi bere babes hainbat ekimenen bitartez erakutsi zion. Lehenik eta behin, kanpaina aurkezteko prentsaurrekoa bere egoitzan egiteko ateak zabaldu zizkigun eta bertan izan zen Hernaniko alkatea, Luis Intxauspe, zeinek bereizgarria soinean zuela argazkia atera genuen. Era berean, Hernaniko Udaleko balkoian “Tengo Baja Visión – Hemen Kontuan Dugu” leloa zuen kartel bat zintzilikatu zen. Eta azkenik, polikiroldegi, Biteri kultur-etxe eta zerbitzu-sozialeko guneak bezalako udal-eraikinetan aurrerantzean Ikusmen Murriztuaren berri ematen da kartel eta pegatinak medio.

1.3.2. Aurten Gipuzkoako beste hainbat herritako udalek ere bat egin dute kanpainarekin ikusmen murriztua duten pertsonen gune integratzaile bezala azalduz, hara nola, Aretxabaleta, Azpeitia, Elgoibar, Lezo, Oñati eta Zumarraga.

1.3.3. Salto Systems, Ulma eta Fagorederlan enpresak ezezik Kutxa Fundazioa eta Laboral Kutxak ere bat egin zuten kanpainarekin.

1.3.4. Hernani, Azpeitia, Oñati, Zarauz, etabar herritako merkataritza elkarteen bitartez gipuzkoar eskualdeko hainbat saltoki eta establezimenduetara ari gara iristen.

1.3.5. Hainbat sentsibilizazio hitzaldi eman ditugu eta 2.1.3 atalean azaltzen dira.

1.4. REAL SOCIEDAD KANPAINA

Pasaden apirilean eta Real Sociedad Fundazioarekin elkarlanean, “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarriaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina berria abian jarri genuen. Horrela, gizarteak ikusmen murriztua duten gizon-emakumeekin duen interakzioa hobetze-aldera jarrera aktiboa izatera animatzeko gure borondatea abiapuntutzat harturik, Real Societadeko Yuri Berchiche eta Aritz Elustondo atzelariak baita Toño Ramírez atezaina ere “Ikur hau ikusiz gero, kontuan izan” kanpainaren protagonista bilakatu ziren beren ahots eta irudia eskainiz.

Sare-sozialetan #KontuanIzan hashtagpean zabaldu ziren zenbait bideo eta irudi medio, futbol-jokalariek hiritarrei ikusmen murriztua duten pertsonekin interakzio soziala hobetzeko konpromezua eskatzen diete.

#KontuanIzan kanpainak hiritarrak ditu jomuga eta hauek “Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarria ezagutu eta modu egokienean jokatzeko duten erantzukizunean jarri nahi du arreta. Izan ere, ikusmen-urritasunak nozitzen dituzten pertsonen inguruan gizarte-mugimendu barneratzaile bat sortzea bilatzen du.

Beste urte batez, El Diario Vasco-n El Diario Vascoren adeitasunez kanpaina iragarri dugu bai idatzizko edizioan zein digitalean ere.

1.5. PROFESIONALEI ZUZENDURIKO SENTSIBILIZAZIOA

“Ikusmen Murriztua Dut” bereizgarriaren bitartez ikusmen urritasuna ezagutzera emateko egiten dugun zereginean barnebiltzen dira hainbat ekitaldi, erakunde, elkarte edo kolektibori zuzenduriko hitzaldi eta aurkezpenak. Hona hemen 2017. urtean egindako batzuk:

1.5.1. Madrilen, “Ikusmen urritasuna eta Ikusmen Murriztua Dut” aurkezpena Gregorio Marañón Ospitaleko Instituto Oftálmico-an izandako saio klinikoan 2017/04/27

1.5.2. Madrileko Teatros del Canal-ean, ikusmen murriztuaren inguruan izandako mahai ingurua 2017/05/5

1.5.3. Madrilen, “XX Curso de refracción para residentes de oftalmología” kurtsoan “Ikusmen urritasuna eta Ikusmen Murriztua Dut” aurkezpena Gregorio Marañón Ospitaleko Instituto Oftálmico-an 2017/10/21

1.5.4. Valentzian, Ikusmen Murriztua Dut App-en aurkezpena SEEBV-en IV Jardunaldietan 2017/11/3

1.5.5. Donostian, Ikusmen Murriztua Dut App-en aurkezpena profesional, ikusmen murriztua duten pertsona eta herritar guztiei zuzenduriko Ikusmen Murriztua Dut Jardunaldietan 2017/12/1

1.6. KOMUNIKABIDEETAN AGERPENAK

1.6.1. Telebista

ETB2 2017/01/23: Programa Ahora: Javier García, Itziar González eta Ramón Urra.

1.6.2. Irratia

RTVE 4/05/2017: Programa Frontera: Amaia Gereñu eta Itziar González-ekin solasaldia.

Segura Irratia 2017/04/4: Amaia Gereñu-ri eginiko elkarrizketa.

Segura Irratia 2017/05/29: Amaia Gereñu-ri eginiko elkarrizketa

RTVE 06/2017: Programa Frontera: Itziar González-ekin solasaldia.

RadioYa 07/2017: Programa Buena Gente: Itziar González-ekin solasaldia.

Radio Euskadi 2017/12/1: Itziar González, Erkuden Larrauri eta Valentín Simón-eri eginiko elkarrizketa.

Euskadi Irratia 2017/12/1 Amaia Gereñu-ri eginiko elkarrizketa.

Radio Sant Feliú: 2017/12/11: Itziar González-ri eginiko elkarrizketa.

RadioYa 2017/12/13: Programa Buena Gente: Itziar González-ekin solasaldia.

1.6.3. Prentsa

"Ikusmen Murriztua Dut" Hernaniko udaleko aldizkarian 2017/10

"Ikusmen Murriztua Dut" Kronika aldizkarian 2017/10

"Ikusmen Murriztua Dut" Urola Kostako Hitzan 2017/10

"Ikusmen Murriztua Dut" Azpeitiako Uztarrarian 2017/10

"Ikusmen Murriztua Dut" Zarauzko Hitzan 2017/10

El Diario Vasco: Acercar los problemas de visión 2017/11/23

"Ikusmen Murriztua Dut" Irekian 2017/12/5

Pasaden uztailen eta Magna Miopiaren elkartearen Cantabriako ordezkaria den Mar Orizaolaren eskutik, AMIRES 2017 Saria jaso genuen, ikusmen murriztua duten pertsonen errealitatearen sentsibilizazio eta difusio lanaren esker onaren adierazpen.

Onuradun zuzenak: ikusmen urritasuna pairatzen duten pertsonen kolektiboa (gutxi gora behera biztanlegoaren %2a). Zeharkako onuradunak: gizartearen orokorrean.

2. Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Egunaren ospakizuna:

Pasaden otsailaren 28ean Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna ospatu genuen Hegalak kirol-gune barneratzailean eginiko ekitaldi batekin. Helburua: gaitz hauetako bat ezagutzera eman, erretinosi pigmentarioa hain zuzen ere, bere sintomak (tuneleko ikusmena eta gaueko itsutasuna) uler daitezzen eta giza mugimendu indartsu baten bitartez, ikerkuntzarako babes garrantzitsua lortu dadin bertan jarria baitugu geure esperantza.

Horretarako 2 ekintza nagusi egin genituen:

– Body Building eta Pilates klaseetako partehartzaileak gure larruan jarri ziren erretinosi pigmentarioaren ezaugarri berezia den tunel ikusmena simulatzen duen konoari esker.

– Kirol-guneko bazkide ugari gerturatu ziren gaixotasunaren inguruan informatzera eta erretinosi pigmentarioaren sintomak jasotzen dituen kamiseta eraman zuten normalean egiten dituzten entrenamendu eta kirol lehiaketatan erabiltzeko konpromezuarekin, era hontara gaixotasuna modu esponentzialean zabaldu dadin.

Erretinosi pigmentarioa ezagutzen ez duten pertsonak gure larruan jartzea, berorrek sortzen dizkigun zailtasunetaz jabetzeko modu itzela da. Ezin uler daiteke ezagutzen ez dena. Esperientzia atsegina izan zen oso, eta jende askorengana iritsi ginenaren sentsazioaz gain gure helburua argi geratu zela eta benetan lortzen lagunduko digutela sentitu genuen.

Komunikabideetan izandako islada:

ETB1: Gaur egun

<http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/gaur-egun-eguerdia/>

ETB2: Tele Berri

<http://www.eitb.eus/es/television/programas/teleberri-mediodia/>

Onda Cero: Eduardo Yañez-ek Itziar González-ek egindako elkarrizketa.

Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta gizartea oro har.

3. Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna:

2017ko Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Eguna zoragarria izan zen, eguraldia eta lekua bikainak izan baziren ere, benetan pozgarriena inguruan gogoz eta ilusioz beterik daukagun jendearen gertutasuna sentitzea izan zen, behin eta berriro ikusten baitugu sentsibilizazioaren eta ikerkuntzaren sustapenaren bitartez gure borroka berezi honetan erretinosi pigmentarioa dugun pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko duten prestutasuna.

Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta beraien gertukoak eta zeharka gizartea orokorrean.

4. Sentsibilizazio hitzaldiak:

2017 urte honetan zehar eta ahalik eta pertsona-kopuru handienara iristeko asmoz, sentsibilizazio-jardueretan buru-belarri aritu gara. Lurraldea bailaraz-bailara bisitatu dugu gizarteari hala Erretinosi Pigmentarioa nola Ikusmen Murritzua zer den azaltze aldera. Abian jarritako ekimen honek hiritargoaren aldetik erantzun eta parte-hartze ona izan du eta, hortaz, gure gaixotasuna ezagunagoa izaten lagundu du. Gainera, ikasleentzat bereziki prestatutako solasaldi interesgarriak medio gure sentsibilizazio-lana ikasgeletara eraman ahal izan dugu.

Erretinosi pigmentarioaren inguruko sentsibilizazioa soinketako klaseetan Donostiako San Patricks ikastetxean. 2017/06/29

Erretinosia, ikusmen urritasuna eta "Ikusmen Murriztua Dut" bereizgarria Azpeitian 2017/10/10

Erretinosia, ikusmen urritasuna eta "Ikusmen Murriztua Dut" bereizgarria Zarautzen 2017/10/17

Erretinosia, ikusmen urritasuna eta "Ikusmen Murriztua Dut" bereizgarria Hernanin 2017/10/11

Erretinosia, ikusmen urritasuna eta "Ikusmen Murriztua Dut" bereizgarria Erreterriako San José Hijas de la Cruz ikastetxean 2017/12/18

Erretinosiaren ondorioz ikusmen murriztua dutenen lekukotzaren bidez sentsibilizazioa IBT- CRI Donostian 2017/12/20

Onuradunak: Gizartea oro har.

5. Erretinosi Pigmentarioa kamiseten bitartez eginiko sentsibilizazioa:

Pasaden urteko apustu handiaz baliatuz, erretinosi pigmentarioa zer den azaltzen duten kirola egiteko erabiltzen diren kamiseta teknikoak ikustarazten jarraitu dugu. Kamiseta hauek egundoko arrakasta izaten jarraitzen dute eta keinu honen bitartez gure senitarteko eta lagunek kirola eginez gure gaixotasunaren inguruan sentsibilizatzen jarraitzen dute. Benetan estimatuak zaudete guztiak!

Onuradunak: Erretinosi Pigmentarioak eragindako kolektiboa.

6. Besteen jardunaldi ezberdinetan parte hartu dugu:

-Zoriontasunaren Eguna Tabakalera Gipuzkoa Solidarioren eskutik 2017/03/20

-V. Boluntariotza Azoka Ordizian 2017/06/3

-Real Sociedad Fundazioaren Eguna 2017/06/11

-VI. Jardunaldia Hondarribia Elkarlanean 2017/10/1

-VI. Gipuzkoa Solidarioa Foruma 2017/10/21

-XXXIX. AON (Asociación Oftalmológica del Norte) kongresua 2017/11/24-25

Sentsibilizazioko ekintzen onuradunak: gizartea oro har.

4.3.- 3. PROGRAMA: Eragindako eta senideei eskainiriko babes eta trebakuntza

Erretinako distrofiak dituzten pertsona eta beraien senitartekoen bizi-kalitatea hobetzea helburu duten taldekako babes eta trebakuntza-jarduerak antolatu ditugu.

Mindfulness eta Heziketa 2017/05/27 eta 2017/06/10

Pasaden 05/27 eta 06/10, biak larunbatak, mediku, psiquiatra eta osasunaren Mindfulness heziketan aditua den Elena Palomo psicoterapeutaren eskutik Mindfulness eta Heziketa lan saioak izan genituen. Bertan, Retinosis Gipuzkoa

Begisareko 9 kide eta lagun elkartu ginen Mindfulness teknika edo “Arreta Osoa” ezartzeko eta bere helburua, kontzientzia egoera sakona lortzea da, kontzientzia bera erlaxatu dadin eta gure sentsazio, sentimendu eta pentsamenduen iritzia landu ez dezan. Norberaren baitan une oro zer gertatzen den jakitea. Mindfulness teknikak pertsona bere pentsamenduetatik bereiztea lortzen du, berauek ezagutu eta eredu mentalak zalantzan jarriz, hemen eta orain garrantzi haundiko kontzeptuak izanik, eta bide batez arreta osoa orainaldian jartzeko helburua erdietsiz.

Hainbat teknika ezberdin ikasi ahal izan genituen estresa eta antsietatea bezalako egoera negatiboen aurrean tratamendu bezala erabili ahal izateko. Lan saio interesgarria eta guztiz probetxuzkoa gure egunerokorako. Onuradunak: erretinako distrofiak dituzten kideak diren gizon-emakumeak eta berauen senideak.

4.4.- 4. PROGRAMA: Kontseilu genetikoa, aholkularitza eta heziketa:

BioDonostia Institutua Erretinosi Pigmentarioaren inguruan burutzen ari den ikerketa-proiektuari ekonomia eta kudeaketa aldetik eskainiriko babesa:

Urtero, erretinosi pigmentarioaren ikerketa proiektua ekonomikoki babestu ahal izateko norbanakoen dohaintzaz gain, ekintza ezberdinak burutzen ditugu funtsak lortzeko.

•Begiclub-eko neskak ekimen ezberdinetan parte-hartzen dute; alde batetik erretinosi pigmentarioa eta ikusmen urritasunaren inguruan sentsibilizatzen dute eta bestetik ekoizten dituzten artisau pitxiak saltzen dituzte dohaintzen truke, bidebatez ikerkuntzarako funtsak lortuz. Zehazki 2017an:

- Stock eta kale azoka Ordizian, 2017/03/11
- Artzainaren Eguna Ordizian 2017/04/19
- Santa Ana Azoka Lasarten 2017/07/23
- Gaztaren azoka Ordiziako Euskal Jaian 2017/09/6
- Santa Lutziko Azoka Zumarragan 2017/12/13
- Gabonetako Azoka Tolosan 2017/12/23

•Gabonetako lotería-txartelak saltzen ditugu, zenbaki bat ia oso osorik. Hortarako laguntza badugu, bazkideak, senitartekoak, lagunak eta duela urte batzuetik hona, hainbat saltokik ere salmentan parte hartzen du.

•“Pintxo-pote” solidarioaren salmenta Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Egunean.

Onuradun zuzenak: Gipuzkoan Erretinosi Pigmentarioak eragindakoak eta bere familia-muina (jaraunspenezko gaixotasuna izanik bikote eta ondorengoak). Zeharka bada ere proiektua onuragarria da gizarte osoarentzat, izan ere, diagnostiko genetiko zuzen batek etorkizuneko belaunaldietatik gaixotasuna eta beronen eramaileak erazteak erakar lezake. Gainera, ikerketaren bidetik eragindakoentzat sendabide bat erdiesten baldin bada gizarte osoa onuratuko da.

Erretinosi Pigmentarioarekin nolabaiteko lotura zuzen edota zeharkakoa duten jardunaldietan izan gara:

- Osasun Elkarte III. Jardunaldia Donostia Ospitale Unibertsitarioan, 2017/05/11
- “Plan de Visibilización de la Baja Visión” jardunaldia Bartzelonan, 2017/05/24
- Ordizian Boluntariotza Azokaren inguruan izandako prentsurrekoa, 29/05/2017
- Revisión del Plan estratégico de OSI Donostialdea 30/05/2017
- Pazienteen Europear Kongresua, Sevillan, 2017/10/20
- 24 ordu arraunean Retina Bizkaia Begisare-ren alde, 2017/10/28
- SEEBV-en V. Jardunaldia, Valentzian 2017/11/3
- XXXIX. AON (Asociación Oftalmológica del Norte) kongresua 2017/11/24-25
- Pazienteen erregistroa ONERO sortzeko bilerak (6.3. info+)

Onuradunak: erretinaren distrofiak eragindako pertsonak eta senitartekoak.

Gure gaitzaren, desgaitsunaren eta menpekotasunaren inguruko zalantzak argitu, iritziak trukatu, aholkuak jaso, eta abar egiteko asmoz, Aholku Batzordearekin hartu-emanak izan ditugu.

Onuradunak: alde batetik, bazkide izan edo ez Erretinosi Pigmentarioak eragindako guztiak baita beraien familia eta lagun-taldea ere eta, beste alde batetik, Retinosis Gipuzkoa Begisare topagune gisa erabil dezaketen Erretinosi Pigmentarioaren alor ezberdinetako adituak. Zeharka gizartea orokorrean, izan ere, Retinosis Gipuzkoa Begisare bezalako elkarteak berauek informa eta aholka ditzaketen adituez inguratuz gero, gaixotasunaren eramailea izan daitekeen edozeini aholku emateko egoera hobeto batean aurkituko dira eta, beraz, hauen ondorengoak gaitza nozi edota eraman ez dezaten beharrezkoak diren neurriak hartu ahalko dituzte.

4.5.- 5. PROGRAMA : Giza-kultura eta kirol aisialdia:

“Hoy toca el Prado” San Telmo Museoan 2017/02/11

San Telmo Museoan Prado Museoaren artelan esanguratsuenetako batzuen inguruan erliebez eginiko erreproduzioak barnebiltzen dituen eta Hoy toca el Prado deritzon erakusketa ikusgai egon zen pasaden otsailean. Edozein izaerako ikusmen-urritasunak dituzten pertsonengana bereziki zuzenduriko jarduera bat dela aintzat harturik, pasaden otsailaren 11 bertan izan ginen eta artea hainbat pintxoren daztaketarekin uztartu genuen.

Onuradun zuzenak: Retinosis Gipuzkoa Begisareren 22 bazkide eta lagun.

Pasai San Pedroko Albaola Museora Bisitaldia 2017/06/22

Albaola Itsas Kultur Faktoria euskal itsas teknologia berreskuratzeko eta dagokion balioa emateko sortzen den espazio berritzailea da, eta itsasontzi historikoen eraikuntza da bertako jardueren ardatza.

Ekainaren 22an egin genuen bisitaldi gidatu honetan begisareko 17 kide eta lagun elkartu ginen eta beste hainbat gauzen artean, San Juan baleontziaren historia partekatua ezagutu ahal izan genuen, hain zuzen ere, baleontzi hau, Euskal Herritik Ternuara joaten ziren zama-ontzi transozeanikoen adibide bat da eta bere aurkikuntzak eta ondorengo ikerkuntza prozesuak San Juan baleontzi berriaren eraikuntza egiteko aukera eman du eta UNESCO-ren Urazpiko Ondare Kulturala irudikatzen duen ikurra bihurtu da. Ondorengo bazkariarekin bukaera ederra eman genion egunari!

Onuradun zuzenak: Retinosis Gipuzkoa Begisareren 17 bazkide eta lagun.

Gabonetako ospakizuna, 2017/12/15

Pasaden abenduaren 15ean Retinosis Gipuzkoa Begisareko 40 kide eta lagun elkartu ginen gabonak ospatuz SUPER AMARA-ren Gabonetako Jaialdi Solidariora joateko, izan ere, aurten jasotako dirua AFAGI (Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten Pertsonen Elkarte) elkartearantzat izango da.

Ederki gozatu genuen hitzordu solidario honetan, batetik "KOADRILA"-ren abenturek tarte dibertigarria pasarazi ziguten eta bestetik, guztiok batera EL CONSORCIOren kanturik arrakastatsuenak abestuz ezezik dantzatzuz ere amaitu genuen.

Pintxo batzu hartzeko aitzakiarekin emanaldiaren aurretik elkartu ginen eta bide batez amaiera eman genien urteko ekintzei.

Onuradun zuzenak: Retinosis Gipuzkoa Begisareren 40 bazkide eta lagun.

5.-MEMORIA EKONOMIKOA

EGINDAKO GASTUA PROGRAMATAN ELKARTURIK

<u>2017eko GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>101,722.17</u>
ELKARTE MUGIMENDUA	13590.86
PROFESIONAL ASKEEN ZERBITZUAK	847.00
ERANTZUNKIZUN ZIBILEKO ASEGURUAK	622.93
HORNIDURAK ETA MANTENIMENDUA	1747.30
ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAK	4137.55
POSTA ETA MEZULARITZA	729.51
BULEGOKO MATERIALA	2882.16
DESPLAZAMENDUAK	1627.70
BESTE GASTU TXIKIAK	126.95
BANKU ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK	249.11
AMORTIZAZIOA	620.65
KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA	59895.92
HEDAPENA/PROPAGANDA	6259.94
WEB ORRIALDEA	1125.30
BEGIRA ALDIZKARIA	3644.65
HITZALDIEN ANTOLAKETA	21033.33
IKUSMEN MURRIZTUA DUT BEREIZGARRIA	27832.70
LAGUNTZA ETA HEZIKETA SAIOAK	1000.00
MINDFULNESS BITARTEKO LAGUNTZA	1000.00
GENETIKA, AHOLKULARITZA ETA HEZIKETA	22171.39
BIODONOSTIA	20000.00
HITZALDIETARA JOATEA ETA BESTEAK	2131.39
AHOLKULARITZA-BATZORDEA	40.00
AISIALDIA	5064.00
GIZA KULTURA ETA KIROL AISIALDIA	5064.00

DIRU-SARRERAK PROGRAMATAN ELKARTURIK

2017eko DIRU-SARRERAK GUZTIRA: 101,721.24

ELKARTE MUGIMENDUA	13589.93
Gipuzkoako Foru Aldundia	3500.00
EJ Partaidetza Asoziatiboa Indartzea	1200.00
Udaletxeak	2526.61
Kooperatiba eta enpresak	4934.92
Kideen Ekarpinak	1428.40

KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA	59895.92
Gipuzkoako Foru Aldundia	10000.00
Eusko Jaurlaritzaz	14265.32
Udaletxeak	6500.00
Banketxeak	14150.00
Erakunde Pribatuak	10000.00
Erabiltzaileen Ekarpinak	4369.00
Kideen Ekarpinak	611.60

LAGUNTZA ETA HEZIKETA SAIOAK	1000.00
Gipuzkoako Foru Aldundia	500.00
EJ Partaidetza Asoziatiboa Indartzea	400.00
Udaletxeak	100.00

KONTSEILU GENETIKOA, AHOLKULARITZA ETA HEZIKETA	22171.39
Gipuzkoako Foru Aldundia	500.00
EJ Partaidetza Asoziatiboa Indartzea	306.00
Udaletxeak	650.00
Kooperatiba eta enpresak	1777.58
Kideen Ekarpinak	4760.00
Dohaintzak	4827.81
Baliabideak eskuratzeko ekintzak	9350.00

GIZA-KULTURA ETA KIROL AISIALDIA	5064.00
Gipuzkoako Foru Aldundia	2500.00
Udaletxeak	719.00
Erabiltzaileen Ekarpinak	1845.00

6.- EMAITZEN EBALUAKETA OROKORRA

Helburuen erdiespena, onuradunen asetze eta kalitate-mailari so eginez gero, 2016 urtean zehar Retinosis Gipuzkoa Begisarek buruturiko jardueren ebaluaketa egiterako orduan, urtea arrakastatsua izan dela kontsidera dezakegu. Izan ere, urte hasieran onarturiko Egintza-Planean aurreikusi ziren ekimenetako asko aurrera eramán ahal izan ditugu eta, era berean, berauetan izandako partehartze- baita asetze-maila ere altuak izan dira.

Elkarte Mugimenduari dagokionean, kudeaketa berak dakartzan ohiko eginbeharrez gain, Erretinosi Pigmentarioak zein bestelako ikusmen-gaixotasunek erakarritako ikusmen-urritasun larria duten pertsonen babes eta aholku eman diegu, bestelako elkarteekin elkarlanean proiektu amankomunak abian jarri ditugu, ikusmen desgaitasuna duten pertsonen eskubideen alde borrokatzen duten elkarten parte izatera sartu gara; elkarlanerako akordioak sinatu ditugu; ekitaldi solidario ezberdinetan parte hartu dugu, eta elkartearen kudeaketaren hobetzea xede izanik trebakuntza- eta heziketa-ikastaro ugaritan izan gara.

Komunikazioa eta Hedapena programari dagokionez, Gaixotasuna Arraroen Eguna, Erretinosi Pigmentarioaren Nazioarteko Eguna eta Ikusmenaren Nazioarteko Eguna medio antolaturiko dibulgaziozko-kanpainen bitartez gizartea sentsibilizatzeko genuen helburua erdietsi dugu, izan ere, ekitaldietan partaidetza-maila altua izateaz gain, bai Gipuzkoa baita Euskadin ere hedapen nagusienekoak diren komunikabideetan islada izan du gure ekimenak. Bestalde, "Ikusmen Murriztua Dute" bereizgarriaren proiektuari bultzada handia eman diegu eskura izan ditugun baliabideekin bere ezagutza zabalduz ez soilik Gipuzkoan, baizik eta Estatu osoan zehar. Honi dagokionean, guztiz aintzindari eta berritzaile diren aplikazioak sortu ditugu zeintzuek ikusmen murriztua eragiten duten ikusmen akats ezberdinak simulatzen dituzte hórrela gizarte osoa gure lekuan jarri ahal izan dadin. Halaber, ikusmen murriztuaren inguruan jardunaldi batzu antolatu ditugu ikusmen murriztua bera ikuspegi orotatik jorratuta. Bestalde, hitzaldi, web-orrialde eta sare-sozialen eguneratze, BEGIRA buletinaren argitarapena, eta abarrekin eman diren azken aurrerapausuen inguruan gizartea oro har eta bereziki eragindakoak informatu ditugu.

Gaixoei babes eskaini eta neurri batean trebatzeko gure konpromezuari dagokionean, bazkideei babes psikologikoa ematen jarraitzen dugu helburu hau betetzeko osatu genuen mindfulness tailerraren bitartez.

Kontseilu Genetiko, Aholkularitza eta Heziketaren alorrean, ordea, gure Lurralde Historikoan maiztasun handienaz ematen diren geneak zeintzuk diren zehaztu eta berauekin ikertzen hasteko helburuarekin BioDonostia Ikerketa Institutuak burutzen duen Erretinosi Pigmentarioaren inguruko Proiektua ekonomikoki eta gure lanarekin bultzatzen jarraitu dugu. Diru-iturriak erdiestearren arrakasta handia erdietsi duten ekimen berriak abian jarri ditugu eta, horiei esker, proiektua bultzatzeko asmoz egin dugu ekarpena benetan esanguratsua izan da.

Giza-Kultura eta Kirol Aisialdiari dagokionean, azkenik, antolatu ditugun jardueren bitartez bai gaixo baita beraien senideek ere, gaixotasun eta bere ondorioen inguruan lasai hitz egiteko giro atsegina sortzeko aukera izan dugu. Erdietsi ditugun partaidetza- eta asetze-mailak oso altuak izan dira.

7.- RETINOSIS GIPUZKOA BEGISAREK ESKURA DITUEN BALIABIDE PERTSONALAK

Retinosis Gipuzkoa Begisare Elkartek kontrataturiko langilerik ez izan arren, neurri handiago edo txikiago batean, elkartearen eguneroko bizitzan eta proiektuen gauzapenean inolako ordainsaririk gabe lan egiten eta laguntzen duten 80 bolondres ditu.

Elkartek dituen proiektuen kudeatzaile eta sustatzaile nagusiak jarraian aipatzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideak dira:

- Itziar González Lorenzo; Presidentea.
- Amaia Gereñu Muxika; Presidenteordea.
- Hilario Colina López; Diruzaina.
- Ramón Urra Erauskin; Idazkaria.
- Aitor Beraiz Goñi; Bokala.
- Markel Etxabeguren Leanizbarrutia; Bokala.
- Javier García Sánchez; Bokala.
- Ana Oyarbide Esnaola; Bokala.

Burutzen dituzten funtzioen trukean kide hauei ez zaie inolako ordainsaririk ematen, izan ere, Euskadiko Elkartearen, ekainaren 22ko, 7/2007 Legearen 19. artikuluan xedatutakoarekin bat, Elkartearen Estatutu Sozialetan ez da horrelako aukerarik aurreikusten.

8.- RETINOSIS GIPUZKOA BEGISAREK ESKURA DITUEN BALIABIDE MATERIALAK

- ONCEk utzitako bulegoa.
- Ikusmen murriztua duten eta/edoitsuak diren pertsonentzat egokituriko ordenagailuak.
- *Smartphone* irisgarria, ikusmen murriztua duten eta/edoitsuak diren pertsonentzat
- iPad Tablet irisgarria, ikusmen murriztua duten eta/edoitsuak diren pertsonentzat
- Telulupa (ikusmen murrizturako laguntza).
- Braille impresora.
- *Perkins* (brailleen idazteko makina).